

Sta. Barbarari erregutuz

Denporale txarraz, Sta. Barbarari jakon fedie bistaritzen zan eta etxe danetan ekarten zan akordura. Eskuetan bedein-kauteko kandela mutur bat hartu eta bai Mallebixen zein Ermuen

*"Sta. Barbara santa Krus
Jauna balio zakiguz.
Iñuzentien ogixe,
Jauna, miserikordixe!"*

errezitatzen zan oiñeztuek eta trumoiek jotzen zittuenien. Hau konjuruau ezagutzen ez zan etxietan Elixako kanpai hotsekin batera, "Pater noster" eta "Agur Marixa"k errezatzen zien, "Sta. Barbarak lagundu deigula zerutik" erregutuz. Etxe dan-danetan gordetzen zan bedeinkauteko bedar txorta bat ganbaran, he-reinotza (laurus nobilis, laurel) eta erremuaz (rosmarinus officinalis, romero) eiñdakue. Hartu handik pare bat adartxo, sartu ur bedeinkatuaz betetako katilluren baten eta etxeko ataixan zabaltzen zan, abadien hisopue astintzen daben erara. Honen ostien, burdiñezko talo-paran ipiñi landarok, sue emon eta hantxe ataixen lagatzen zien, harik eta dana erre arte.

Trumoi zaratiek txakur danak zaunkez edo ezkutaleku bille ipintzen zittuen, ezkatze-ko mahai edo orromahaipien gorde nahixen euren buruek. Baiña jentiari benetako bildurre trumoiaren ondorengo oiñaztuek emoten zotsien, base-rixetan bizi zienei endemas. Oiñeztarriek atrapau ezkeroko piñuek be hasi goititik eta beharaiñok zabaltzen zittuen; holakueta Elixako kanpandorreko oiñeztorratza hurriñegi egoten zan kalterik ez eittuko. Harek edonun jo leikian eta zenbat eta altuao gainera orduen eta arrisku gehixao. Ganaue atrapau ezkeroko, lurrien etzunde lo balegoz lez hilde lagatzen zittuen. Personaik be ez eban errespetatzen; haren atzaparretan jausi ezkeroko, bertan seko. Kontu haundixe euki bihar izaten zan erremintxeekin eta denporale txarroi soluen subertau ezkeroko, segie edo eskuetan ekena bertan behera laga eta aide etxera! Ardizaiñen guardasolpien egon eta haren muturreko burdiñian eragiñez, gortuz guztixen kalanbrie sentidu dabena be ezagutzen dogu. Akorduen euki bihar izaten zan erreka eta arbolapietatik


zenbat eta hurriñago hoba zaila, honek be itxurie tiretu eitten ei dabe eta.

Etxien gero bentana eta ate danak ixteko kargue euki biher izaten zan, diñue-nez haixe korrientie atzena da oiñaztuandako. Oiñeztarriek ezkatzeraiñok sartzeko gauza die, tximinixatik ezipada be, Mallabixen ma-

kiñatxo etxetan pasau dan lez.

Esaten zan arrisku gitxien ohien euala, personie aidien eualako. Ahor ba, oiñeztarrixe baiño gauza lotsagaldukuaorik gitxi: edonun eta edozelan abisue jo barik sartzeko atrebentzia daka. Baiña oheratu, kontizu? Iñoaz bez!

Estibalitz González



Talo-parie hereinotza eta erramuaz ipintzen zan sua emoteko.

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL./ FAX 943 17 42 89



Ana Oiarzun
Psikologian
lizentziatua
Sexologoa


- **SEXOLOGIA**
- **BIKOTEENDAKO**
BITARTEKARITZA LANAK

Blas Etxeberria 2, behea

Telf. 943 20 08 20
Mobila. 635 74 62 50

JUAN LUIS fruitategia

Mikel Zarate 4
635 73 95 05
Mallabia



eskaintza berezietaz GOZATU